



●PLANO INKLINATUA: ARRAPALA ETA ZIRIA


Plano inklinatua bi maila ezberdin lotzeko erabiltzen den aldapatxo da, bi modutan ezagutzen dugu: bata da arrapala eta bestea ziria.



Objektu astunak arrastaka igotzeko edo jaisteko balio du. Lan handiagoa da gurditxo bertikalki jasotzea, malda txikiko arrapalan gora bultzaka eramatea baino. Baina, halere, arrapalan gora indarrean irabazten dena ibilbidean galtzen da, zuzenean altxatuta baino ibilbide luzeagoa egin behar baita.



Gauza bat arrapalan gora igo ordez, arrapala berbera sartzen badugu gauza horren azpian ziria izena hartzen du. Horixe da, hain zuzen ere, ziriaren egitekoa eta berorren printzipioa erreminta askotan aplikatzen da, hala nola aizkoran eta zizelean.



Aspalditik ezagutzen da plano inklinatuaren printzipioa. Arrapalei esker egiptiarrek piramideak eta tenpluak eraikitzea lortu zuten. Ordutik hona plano inklinatuak erabilpen ugari izan ditu: giltzarrapoa, mozailea, goldea eta kreamilera, besteak beste.